

# UDA KIKUKA

Haur eta nerabeak

2026



BERGARA  
izan, bizi, ekin



Begarako  
Udala



Udaleku irekiak · Kirol kanpusa  
Kirol eskaintza · Laboratorium museoa



# UDALEKU IREKIAK



**Ekainaren 29tik uztailaren 24ra**  
(4 aste aukeratuz gero)

**edo**

**Ekainaren 29tik uztailaren 17ra**  
(3 aste aukeratuz gero)

**Ordutegia: 10:00-13:00**

Udaleku irekiak aukera paregabea dira Bergarako ume guztiak elkartu eta euskaraz, aisialdi hezitzaileaz gozatu dezaten.

## PARTE-HARTZAILEAK

- 2014-2021 urte bitartean jaiotako haurrak.
- Haurrak Bergaran erroldatuta egon beharko du edo udaleku garaian Bergaran bizi beharko da (familiarteko baten etxean, harrera familiarekin...)

## ANTOLAKETA

Udaleku irekietarako sarrera eta irteerak topagune hauetan izango dira:

- HH4, HH5 (2020 eta 2021ean jaiotakoak): Ortuibar pasealekuko arkupeetan.
- LH1 (2019an jaiotakoak): Udal pilotalekuan.
- LH2 (2018an jaiotakoak): Santa Marinako arkupean.
- LH3, LH4, LH5, LH6 (2014 eta 2017 urte bitartean jaiotakoak): Oxirondo plazan (azoka ondoan).

Haurrak 10:00etan utzi beharko dira topalekuan eta jaso ere bertan jasoko dira 13:00etan.

- **HH2 eta HH3** (2023 eta 2024an jaiotakoak) egin duten ikasleentzat ez da udaleku irekirik antolatuko baina herriko hiru ikastetxeek antolatuko dute hauei zuzendutako aisialdi zerbitzua ikastetxean bertan. **Informatu zure ikastetxean.**

- **Angiozarren eta Osintxun** udalekuak eskainiko dira (2014-2023 urte bitartean jaiotakoei zuzenduta) baldin eta gutxieneko 12 laguneko taldea sortzen bada.

Gutxieneko 12 laguneko talde hau aste guztietan mantendu beharko da, hau da, laugarren asterako 12 laguneko minimora iritsi ezean ez da auzoan 4. asterako udaleku irekirik eskainiko.

## IZEN-EMATEA

Izena emateko epea: **apirilaren 20tik maiatzaren 10era** (biak barne).

**EZ DA EPEZ KANPOKO IZEN-EMATERIK ONARTUKO.**

**Izen-ematea egiteko bideak:**

INTERNETEZ: [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) webgunean UDALEKUAK atalean.

UDALETXEAN-BAZ: Astelehenetik ostiralera: 08:00-15:00  
Ostegunetan: 07:30-15:00 eta 16:00-19:00

LIBURUTEGIAN: Astelehenetik ostiralera: 8:15-20:15  
Larunbatetan: 9:00-13:00

Behin **izen emate epea pasatuta, libre dauden** adin tartetean **plazak eskainiko dira**. Horretarako **maiatzaren 18tik 22ra** deialdi berezi bat egingo da. Udalak ezin du ziurtatu deialdi berezi honetan plazak egongo diren ala ez. Deialdi berezi honetatik kanpo ez da inolako eskaerarik onartuko.

## PREZIOA

Aukeratutako aste kopuruaren eta izena eman duen seme-alaba kopuruaren arabera:

UDALEKU IREKIAK	3 ASTEKO IRAUPENA	4 ASTEKO IRAUPENA	TARIFA SOZIALA 3 ASTE	TARIFA SOZIALA 4 ASTE
Lehenengo eta bigarren seme-alaba	89€ bakoitza	112€ bakoitza	42€ bakoitza	54€ bakoitza
Hirugarren umea eta ondorengoak	Dohainik	Dohainik	Dohainik	Dohainik

## ORDAINKETA

Izena ematerakoan eskatzaileak kontu korrante zenbakia emango du eta udalak pasatuko du bankutik bakoitzari dagokion zenbatekoa.



## TARIFA SOZIALA UDALEKU IREKIETAN

Tarifa soziala aplikatzeko baldintzak:

- Elkarbizitza unitateak Bergaran erroldatuta egon behar du.
- Elkarbizitza unitateak diru kopuru hau baino gutxiago jaso behar du urtean.

Bi pertsonako unitate familiarra	29.805,23 €
Hiru pertsonako unitate familiarra	35.247,67 €
Lau pertsona edo gehigoko unitate familiarra	40.689,91 €

### Tarifa soziala eskatzeko prozedura:

Udalekuetan izena emateko epe barruan (apirilaren 20tik maiatzaren 10era) tarifa soziala eskatu beharko da udaletxean bertan, B@Z zerbitzuan.


Astelehenetik ostiralera: 08:00-15:00

Ostegunetan: 07:30-15:00 eta 16:00-19:00

### Tarifa soziala eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Unitate familiarra osatzen duten kide guztien NAN agiriak.
2. Pertsona Fisikoen Errentaren azken ekitaldiko aitorenaren agiria edo, bestela, egin ez izana justifikatzeko agiria (Ogasunean emango zaio agiri hau).
3. Langabezian daudenean, Gizarte Segurantzako "lan-bizitza" agiria eta prestaziorik ez dutela jasotzen egiaztatzen Lanbidek emandako agiria.
4. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) edo antzeko laguntzarik jasotzen egonez gero, ez da aurkeztu beharko 2. eta 3. puntuetako dokumentazioa; baina aurkeztu egin beharko da DBE edo laguntza jasotzen ari izanaren egiaztagiria.

# UDA KIROL KANPUSA



**Ekainaren 29tik uztailaren 24ra**  
(4 aste aukeratuz gero)

**edo**

**Ekainaren 29tik uztailaren 17ra**  
(3 aste aukeratuz gero)

**Ordutegia: 10:00-13:00**

## PARTE-HARTZAILEAK

- 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017an jaiotakoak.

## DESKRIBAPENA

Udako oporretan, kanpoko kirol ekintzetan oinarritutako kanpusa. Elkargunea Agorrosin ingurua izango da eta goizean zehar, Bergarako kirol instalazio ezberdinetara mugituko gara taldean.

Bi aukera egongo dira: 3 astetako ikastaroa egin ahalko da edo 4 astetako. Laugarren aste horretan taldeen eraketa berria egingo da.

## HELBURUA

Aisialdia aprobetxatuz, bizitza aktiboa eta osasuntsua sustatzea dugu helburu. Opor garaian daukaten denbora librean, jarduera fisikoa eta kirol ezberdinez gozatzeko aukera izango dute parte hartzaileek.

## EDUKIAK

Kirol ezberdinak egingo dira: piraguismoa, beisbola, hockeya, irristaketa, badmintona, eskubalioa, saskibaloia, futbola, tenisa, natur jarduerak, ur jolasak...

## IZEN-EMATEA

Izena emateko epea: **apirilaren 20tik maiatzaren 3ra** (biak barne).

**Izen-ematea egiteko bideak:**

INTERNETEZ:

[www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) edo [www.bergarakirola.eus](http://www.bergarakirola.eus) webgunean UDALAKUAK atalean.

AGORROSIN EKINTZA GUNEAN:

Asteleheneetik ostiralera: 06:30-20:00

Larunbat eta igandetan: 09:30-13:30 eta 16:00-18:30

## PREZIOA

Aukeratutako aste kopuruaren eta izena eman duen seme-alaba kopuruaren arabera izango da. Tarifa soziala eskatzeko aukera izango da.

KIROL KANPUSA	3 ASTEKO IRAUPENA	4 ASTEKO IRAUPENA	TARIFA SOZIALA 3 ASTE	TARIFA SOZIALA 4 ASTE
Lehenengo eta bigarren seme-alaba	89€ bakoitza	112€ bakoitza	42€ bakoitza	54€ bakoitza
Hirugarren umea eta ondorengoak	Dohainik	Dohainik	Dohainik	Dohainik

## TARIFA SOZIALA

Kirol Kanpuseko Tarifa Sozialaren eskaera Agorrosinen egin behar da apirilaren 20tik maiatzaren 3ra. Baldintza eta aurkeztu beharreko dokumentazioa udaleku irekien atalean (5. orrialdean) daudenak dira.

## IZENA EMANDAKOEN ZERRENDAK

BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK: Maiatzak 4

ZOZKETA EGUNA (gehiengo kopurua gaintuz gero): Maiatzak 6

BEHIN BETIKO ZERRENDAK: Maiatzak 6

Plaza libreak geratuz gero, maiatzaren 7an, goizeko 9:00etan berriz ere zabalduko da galdetegia eta izena emandako hurrenkeran plaza horiek betetzen joango dira.

Behin behineko zerrendak eta aurrera aterako ditugun taldeen berri izatea, izena eman duenaren ardura izango da. Informazio hori Agorrosingo iragarki taulan eta [www.bergarakirola.eus](http://www.bergarakirola.eus) webgunean eskura egongo denez, ez da inongo jakinarazpenik egingo.

## ORDAINKETA

Behin plazak esleitutakoan egin beharko da ordainketa eta orduan jasoko dute familiek beharrezko informazioa.

## UDA KO IGERIKETA KANPAINA

1. txanda: ekainaren 29tik uztailaren 10era  
 2. txanda: uztailaren 13tik 24ra

## GAZTEENTZAKO UDA KIROL KANPAINA

Ekainaren 22tik uztailaren 17ra

## GAZTEENTZAKO IGERIKETA EGOKITUA

Ekainaren 22tik uztailaren 17ra

# UDAKO IGERIKETA KANPAINA

1go txanda: ekainaren 29tik uztailaren 10era  
2. txanda: uztailaren 13tik 24ra

## PARTE-HARTZAILEAK

2014-2022 urte bitartean jaiotakoak.

## IKASTARO ORDUTEGIAK

- Zapaburu eta 2. maila: 16:00-16:45  
16:45-17:30
- 3. eta 4. maila: 17:30-18:15

## IKASTARO EGUNAK

Egunero, astelehenetik ostiralera.

## PREZIOA

Abonatuak: 40,21€ / Ez abonatuak: 82,03€

## OHARRA

Ikasleak 2026an ez badu igeriketa ikastarorik egin edo ez bada ikastetxearekin etorri eta Zapaburu maila baino altuagoa badu, izena eman aurretik mailaketa frogatzea egin beharko du. Horretarako, txanda hartu beharko da Agorrosingo harreran.



# GAZTEENTZAKO UDA KIROL KANPAINA

Ekainaren 22tik uztailaren 17ra

## PARTE-HARTZAILEAK

2008-2012 urte bitartean jaiotakoak.

MULTI-TRAINING (Areto txirrinda, Kros fita, TRX...)	ARETO TXIRRINDUA	PADELA
11:00-12:00 astelehena asteazkena	12:00-13:00 astelehena asteazkena	11:00-12:00/ 12:00-13:00/ astearta osteguna
PREZIOAK (Abonatu / Ez abonatu)		
29,17€/59,61€	31,79€/64,83€	42,90€/87,52€

# GAZTEENTZAKO IGERIKETA EGOKITUA

Ekainaren 22tik uztailaren 17ra

## PARTE-HARTZAILEAK

2005-2013 urte bitartean jaiotakoak.

## IKASTARO ORDUTEGIAK

16:00etatik aurrera.

## IKASTARO EGUNAK

Astearte eta ostegunetan.

## PREZIOA

Abonatuak: 34,12€ / Ez abonatuak: 69,52€

## IZEN-EMATEA

---

Izena emateko epea: **apirilaren 20tik maiatzaren 3ra** (biak barne).

### Izen-ematea egiteko bideak:

INTERNETEZ: [www.bergarakirola.eus](http://www.bergarakirola.eus) webgunean UDALEKUAK atalean.

AGORROSIN EKINTZA GUNEAN:

Astelehenetik ostiralera: 06:30-20:00

Larunbat eta igandetan: 09:30-13:30 eta 16:00-18:30

## IZENA EMANDAKOEN ZERRENDAK

---

BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK: Maiatzak 4

ZOZKETA / BEHIN BETIKO ZERRENDAK: Maiatzak 6

## ORDAINKETA

---

Izen emate orrian, kontu korronea eman duenari bertatik kobratuko zaio ikastaroa hasi baino astebete lehenago.

Gainontzekoek ordainketaren tramitazio osoa ikastaroa hasi baino **astebete lehenago** egin beharko dute:

1. Ordainketa banketxean egin eta ordainagiria Agorrosinera garaiz ekarri.
  - Kutxabank: ES59 2095 5070 76 1060284535
  - Laboral Kutxa: ES06 3035 0009 13 0090016873
2. Txartelarekin, Agorrosineko harreraren.
3. Eskudiruz, Agorrosineko harreraren.

Abonatu tasa aplikatuko zaie kobraketa egunean abonatuta daudenei.

## ARAUDIA

---

- Gehienezko kopurua gainditzen bada, izen-ematea zozketa bidez egingo da. Zozketan lehentasuna, abonatuak direnak izango dute.
- Bajarik ez da onartuko izena ematea itxi eta gero (maiatzak 3). Horregatik plaza lortzeak ordainketa nahitaez egitea dakar.
- Jarduera bakoitza aurrera ateratzeko, GUTXIENEO taldekide kopuru bat beharko da.
- Aurrera aterako ditugun taldeen berri izatea izena eman duenaren ardura izango da. Informazio hori Agorrosingo iragarki taulan eta [www.bergarakirola.eus](http://www.bergarakirola.eus) webgunean eskura egongo denez, ez da bestelako jakinarazpenik egingo.